

GARIZUMA

Gerrate garaia zan, Behin behar eta Alemania gerrate bero eta bizian zebillen. An zabilazan, odol-irakinean, bere semerik lerdenean.

Sortu zitzaion erregean seme gaxtari ere gerrara joateko irrika. Gau eta egun beti lelo berdiña: "Aita, gerrara joan behar dut".

—"Baña, seme, bai al dakizu zer esaten duzun? Gerran jende asko ilzten da. Zu ere il zindekze".

—"Etaizo aklarik, aita, nik gerrara joan behar dut".

Nola kendu semeari burutapen txoroa? Ona zer bururatzen zaien bat-batean Erregeari: "Kuadro bat pintatu araziko diot Alemaniako margolariarik onenari. Ager dezala bertan ondo, gerra zer dan".

Gudariak lida, emateak alarzun, seme-alabak umezurtz, jendea ihesi eta izkututa, asko erbesteak eta giltzapen, erriak apuruta, etxeak txikituta, gizon-ekumumeak itsu, erren eta ebarri, odolozko ibaiak, gorrotoak, piakakzeriak... zer etzan azaltzen kuadro artan.

Eta semeak ori ikusitakoan negarrez-zotinka: "Aita ori al da gerra? Agindu zazu, aita: Amaitu bedi gerra. Ez inor il".

Onelako zerbitu izan nahi du ale onen azalak. Azal ortan gure gizartearen negar-zotinka, ikara-larriak, zorne eta gaitzak agerzen zaizkigu.

Eta aje guzi oien iturri?: pekatua. Gizonaren txarkeria eta erakundeen bigeaberberia.

Ona garizuma pekatuaren sustrai oiek mozteko, txarkeria cieki desegiteko, bigeaberberia oiek kentzeko.

Garizuma ez da, ostralaetan aragi merkearen ordez angula edo langosta gauria jan dezagun.

"Ona, Nik aukeratu dedan barua —Jaunaren itza—: Bigeaberberko kateak eten; Uztarrien lokerk askatu; menpekoak askatu; uztañri guztiak puskatu; gose danari zure ogitik eman; atepere-gabe dabilazan behartsuak etxean artu; billutsik dagoana jantzi; eta ez muzin egin zure urkoari" (Is. 58).

"Eta zuek, aberatsok: egin negar garrasi batean, gainera de-fozkituzen zoritxarrek dirala-ta... Zuen sorretan itaiean egin du-zen langillei eman ez dieuzten lan-saria, deiadarka ari da, eta itailarien deiadarrak iritzi dira Sabao-Jaunaren belarrietaraino" (Sant. 5).

Kristaon Jainkoa, Jainko Azkatzailea da. Eta Garizumaren gailurra —Pazko eguna— askatasun eguna.

Orregatik gogoratu digu lehenengo igandetik: "Ejiptoarrak gaizki erabili ginduzten eta morrontza latza ekarri zituzten. Orduan gure Jainkoari deiadar egin genion eta... Jainkoak Ejiptotik atera gindun esku gogorrez eta beso sendoz, bildur-ikara, ezaugarri eta arrigarri artean".

Euskara benetan plazara

Arakako kanpamentuan, nere konpainian, ni bezalako soldadu dago Zugarumurdiko mutil bat. Hain atsegin duan lapurteraz mintzaten da, jakina, eta euskaldunak franko moduan, basotan lan egiten du, nahiz Euskal Herrian nahiz Frantzia nahiz Italian.

Egun batez, euskarari berari buruz mintzo ginelarik, esan zidan euskara hil behar zela, ez bait zen euskaraz letzarik eta ez bait zuen berak gatzelania ongi ulertzen eta hitz egiten.

Ba dakit antz jendek harrituko eta min hartuko digela uste horren aurrean. «Mutil horrek euskararen konplexua daduka», esanen dit norbaitek. Edo: «Hori dio, kontzientzia politikorik ez dadukalokotz».

Lehenhori, ordea, ez da konplexu bat, izana (erreallitatea) baizik. Orain arte bederen, ez dugu euskaldunok euskara goi mailako kultur-hizkuntza bilakatu. Euskal Herrian injinadore, irakasle edo midiku izateko ez da aski euskara jakitea: hortarako behar da frantses nahiz espainola jakin. Bigarren erantzunari dagokionez, ba dirudi, euskarari eusteko abertzale izan behar dela. Hori hala da eta hala izan da antz kasotan. Baina abertzaletasunak bakarrik sostengatuko ote du euskara? Euskaldun guztiok abertzaleatu zai egon behar ote dugu?

Bestaldetik, egun ere, eta baita euskarazko eskualdetan ere, euskararik gabe pasa ditzake, euskara ez da antzitan behar-beharrezkoak batez ere jende eskolatuen artean.

Egoitza hau nolaz gainditu? Jarraiko bide bi ikusten ditut nironek, bat bakarra bada ere:

1. Euskara kultur-hizkuntza eta irabaz-bide bihurtu.

2. Euskara beharrezko erazi (erdarazko eskualdetan minik eragin gabe).

S. Haranak arrazoinetz idatzi zuten: «Hori ezazute euskara beharrezkoa. Horrela, euskara ez dakienak euskara ikasteko» akullu-sentituko du, eta dakienak arrazoinari edirenen du euskara erabiltea».

Izan ere, hizkuntza bat ezin sos-

tenga ditzake esanez oso zahar dela edo oso polit dela. Balio behar du euskara jakiteak, laburki esanda.

Inork ez behiztik bere soinekoak urra, beraz, Zugarumurdiko mutliak esan zidanagatik. Ekin behar diogu lanari. Euskarari ongi ikasi, irakatsi, mintzatu behar dugu, eta jakintza eta salerospeneko eremuetan osorik sartu. Egiteko honetan ba dugu euskaldun guztiok geure lekua. Inor ez ditzake egon, besteek zer egiten duteen zai edo ikusiaz soil-soilik.

(Berriki jakin dut, Bilboko argitaratzaile batek Atletico de Madrid-aren kondairara argitara eman duela. Honelako langileez, noski, ez naiz ari).

Daniel Hibargotti



Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).

Donostia: Okendo, 22
Tel. 42.66.66

ARPIDE SARIA:

Barruan	250 pezeta
Korreo batasunetako errietan	300 pezeta
Atzerriretako beste errietan	320 pezeta
Aidez	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitzan)	6 pezeta

KONKORDATOA (II)

Ikus eta ikas dezaten, Konkordatoa Espainiako Gotzaien eskuetan dago. Batikanoak azken erabakiak artu aurretik Espainiako Gotzaien gurtien iritzia jakin nai du.

Ortarako Madrilen bildu dira. Iritzi emailak besteak beste dira izango Gotzaiak; azen itxi Batikanoak eta Gobernuak. Zerbitu bat Gotzaien iritzia eskatzen. Orain arte Batikanoak bere gisara, Gotzaiak aintzakotzat artu gabe, konkordatu egillie izate bai zan... Txikia, baña aurerra egindako pausoa beintzat... Beste pauso asko egin bearko dira Jainko-Erriak orrelako arazoetan parte artzeko.

Konkordatoaren anteproyektua Gotzai bakoitzari eman zitzaion. Bakarka atzerkatu eta gure batera, Batzarrean, denen iritzia jasotzeko. Kongsina bat ere bazuten Gotzaiak: «Ixo... ixo... Niorik ez beza jakin nolako dan Konkordatu ori... Gorde isilpean... Zuen erria izan bedi ez jakin».

Zenbat xelebrekeria ordea gure artean... Batikanoaren aginduz, kolokan ondo ere ondo gorderik ziztuzten Konkordatu izan behar zuenaren agiriak gure Gotzaiak. Bitartean, barra barra, egunerokoetan, itzetik ortzera Konkordatoaren anteproyektua zabaldu da. Estuadiari esker, berri oiekini jabetu gera.

Batikano... Batikano... Zer zera zu...? Estadu politikari bat...?

Batikano... Batikano... Politikoa jokoan galtzaille izango zera... Ez baita zure jokoa... Diplomaziak eta maltzurkerian edonon zu baño areago... Eldu zaitetz plazara zure agotzako egitera: Kristau-talde eder bat osatzen dezan Eliza izan zaitetz, Batikano... Munduan zear zabaldurik dauden beste kristau-talde guzien gatz... argi... gidari... izango baziña... txapela zuretzat litzake.

—oO—
Konkordatoaren atzerketa... Nolanoko egingo ote dute Gotzaiak...? Batzuek atzerkoi... besteek aurrekoi... onoko ok erdiko... zenbat elkar izketa... disputa biziak... Oraingo ez degu jakingo nolatan berotzen diren gure Gotzaiak... Nolanatan batzuetan aserretu ere... Ez, ez... Jaungoikoaren Erriaren Zuzendariak isilpean jardungo dira... Gero, ofizialki, izoztutako legatza baño otzagoko informazioa emango digute... Baña an barruko xaltza beira urak... Erriarentzat goxoei izaki eta berak bakarrik miatzatuko dute.

Aalik eta askatasun audiencia iritxi naiko dute Elizarentzat konkordatu bidez gure Gotzaiak. Askatasuna... Itz sakratua... Xto Jainkotasunez ustua egin zan eta erri exearren mailan jarri bere burua libre eta aske izateko. Zerbitzari

izatera etorri naiz ni, ez mirabetua izatera. Kanpora agintari soinekoak! Morroi jantziakin apalki serbi beza gure Elizak bere erria.

Erria serbitzeko askatasuna bear du Elizak. Elizak aske eta askatzaile batera izan bear du.

Erriaren askatzaile agertzen ez dan Eliza, bear dago kate gogorrez lotuta. Lotuta dagoen erri baten kateak puskatzen alegeintzen ez dan Eliza, ez da erri orren morroi eta zerbitzari. Erriak askatasunik ez badu itz egiteko, bere pentsarrek agertzeko, elkartzeko... Erri orren zerbitzari dan Eliza ezin isilik egon, ezin alegeinik egin gabe gelditu giza eskubide guztiak erri orrek iritxi arte.

Bear bada diozu: —«Lortu beza Elizak bere askatasuna, askatasun ori erriaren alde erabil dezan.

—Guzurrezko planteamentua duzu ori. Xto, gizona pekatutik askatzeko, gizon egin zan... gizonaren mailara jexi... gizonaren pekatuak bere bizkarraren gain artu... pekatarietan jan... beren kidero egin... pekatari bezela li.

Elizak ere erri orren mailara jexi bear du... Lotutakoekin bat egin... Lotutakoan antzera bizi... Batera izan bear du aske eta libre eta lotutako gizonen askatzaile. Arostegitar Jokiñ

ALFERREI GUTUN IREKIA

Agur alfer hori:

Alferkeria ez duk munduan gauza berria. Ba zekiat eta ba dakik. Kokodrioren losusta luzeen berri duenak, nekex uka ziezakak burioak alferrak direnik. Hots, saurioak Sekundarioan bizi izan hituan! Orain dela ez zekiat zenbat miloi urte!

Alferrarena egin ahal izateko erabiltzen diren aitzekiek, alderantziz, itxura «berria» hartu diate gaur. Funtsezko eta betiko alferkeria hori «superestruturak» edo azalpenak aldatu egin dituk. Alde horretatik, hi alfer «berria» haiz. Alfer «klasiako» ondoren, alfer «berria» agertu zarete gaur gure arte.

Hik ez duk, eskierki, Paul Lafargue-ren «Le Droit à la Paresses» liburu famatua irakurri, nahiz liburu horrek 90 urte izan. Jakin gabe, ordea, atginearrearen teoriak baino maiteago dituk hik suhiarenak (parte hau bederen!), eta gogozago jarraitzen. Lafargue-k bezala hik ere «lanaren mistika» gorrotu duk; eta, Marx-en suhiaren teorien berriz izan bahu, maizago aipatuko hituzkenen heure alde. «Lanaren mistika» hori, burgesiaren «azken argudio metafisikoa» dela uste bait zuen, langileria zeharo eta buru-raino zapal ahal izateko.

Aurreko mendeetan, batespenak, kontenplazioak alegia, ohore guzia merezi zian, eta bizimodurik gorenekatat hartu ohi huan; beharbada mende haietan Eliza eta komentuak nagusi zirelako. Gaur batera ez. Gaur «american way of life» delakoa gutzaz jabetu duk, eta lan egin beharra zegok. Beharraz lan ere, ahal dugun eta plus-valiarik haundiena lortu behar omen diagu. Baina, horrekin batera etekinak noren poltsikura doazen atzerkin ez badugu, beteko diren poltsikuhorien jabeen jokoak egiten diagu. Baietz, byaz: konprenitu uste haur.

Orain ba dakik, beraz, Laura Marx-en senarrak berak Thiers-en bitimik, Londres-a desherriutako sozialista ospatsuk, gauza bera esaten zian: alferkeria gizonaren ESKUBIDE BAT dela, eta «lanegitoko eskubidea» eskatzea astakera hutsa... burgesiaren menpean bederen.

Ni neu ere sorkuraz alferria izanik, bai Lafargue eta bai hi konprenitzeko egoera onean nagoele uste diat: surangile hainbat maite uste diat nik ere eguzkitan etzan eta kolperik eman gabe ordu pare batez egotea. Norik ez?

Eta ba zekiat, eta ez sorkura hutesz bakarrik, ba dagoela gure gizartearen produktibitatearen mifologia bat, burgesiari oratua; eta, hau dela-ta, oso gaizki iritzi dela alferkeriaren defentsa. Gehien-gehiarik alferria izan ziaiteke; baina alferkeriaren defentsa egitea ez duk haizu, ezin itsusiago duk; besteren lepora bizi direnei ziaiek itsusiena hain zuzen. Hik ba duk,

orka eta egiazkoa duk: hauetxek bizi dituk alienaturik, loturik, eta astirik batera gabe. Kontuz, beraz.

Hi ez haiz oraindik «sistema» sartu. Zorionak! Ez zak ahantz hori lujo bat denik. Ez pentsa gero lujo apala: lujoarik haundiena, hain zuzen, denbora eta astia ezin bezetza.

Irañ haundia duk txiroarentzako aberatskek beren ondasunak lotsarik gabe haren aurrean erakustea eta beren indartasunaz harroptu agertzea.

Baia irain larriagoa duk, nik uste, DENBORA ALFERREI HONDA-TZEA ETA XAHUTZEA. Eguneroko goizeko hamaiketan ohetik jakitzien dena, eguneroko arratsaldeko lauretan oraindik ere mahainetik jaiki ez dena, eguneroko berriak aspergarrin denbora pasatzen duena, beharbada oso egokiro mintzo duk «sistemaz». Hik ere ederkik egiten duk. Baina ni bildur, egiazko langileei, egiazko zantpatei, astia zer den jakiteko 65 urte bete behar dituztenei, eta egiazko sozialistaei, ez hitzaitzen hi «sistema» bera baino higuangiarriago.

Ez diat inolaz ere esan nahi gogozetik arratsaraino (eta ahal baduk, gainera) eten gabe «lanean» egon behar duanik, ere gutxiago zain lan-motatan. Hori norberak ikusi behar dik bere helburuen arabera... eta bere patrikaren arabera!

Ez hori bakarrik: ni ados negok futsaen Lafargue-rekin; eta pentsatzea, gogoeta-egitea, eta izadiak goza ahal izateko lehen mailako eskubideak iruditzen ziaizkidak. Lafargue-ren batera gogaide ez zen Mahatma Gandhi-k ere astero hartu ohi zian «isilatsunaren eguna» pentsatzeko, otoitz egiteko, bere buruarekin solasean egoteko; eta, hitz batez, «alfertasunean» igarotzeko. Ezen horretan ez bait dago «keriarik».

Gauza bakar bat gogorazi nahi nian gaurkoan: astia urrea dela, urrea baino baliosago ere bai. Eta hik, itxuraz, asti hori alferrik hondatzen duela. Gogoañ har zak, otol: langile askok, gehienek gaur arte, astia zer den ez dutela bizi guzian jakiten ahal. Eta langile horiek eta nik neuk hi sinis hazagun, astiarekiko errespetu osoa eta ezin haundiago erakutsi behar diguala aurrenik.

Azken ohar bat bukatu aurretik. Horrela jokatuz, iber esanetan bederen gorrotu uste duan «sistema» hori, heuk gortortzen duk. Gizarte berriaren erudetzat heure burua arketuz, heuk ematen diet aitzekia eder bat sozialismoren etsaiki. Heuk uzten dituk farragarri heure burua eta, okerrago dena, zinez eta egiazki «sistema» horren kontra egiteko, dena eskeintzen dutenak. Denbora galdtu nahi izatekotan, ez hadi plazara ageri izkuta hadi bederen. Izan zak astirik gabe bizi direnekiko errespetu apur bat. Agur t'erdit!

Larresoro